JARDUKETA IZENA	Ubarango erreka lehengoratzea (C1)

Zer KBEtan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Leitzaran ibaia

LOTURA NATURA 2000rekin

Ubarango erreka lehengoratzea Natura 2000ko plangintza-helburu hauen baitan dago:
- Ibai Korridore Ekologikoa kudeaketarako funtsezko elementuaren 3. helburu operatiboa: "Ibai korridorean oztopoak ezabatzea. Honako jarduketa honekin lotua dago, zehazki: "AP1. Proiektuak prestatu eta gauzatzea, KBEan edo inguruetan erabiltzen ez diren emakidei loturiko oztopoak iragazkortzeko/eraisteko".
- "*Parachondrostoma miegii* eta Komunitate iktikoa oro har" kudeaketarako funtsezko elementuaren 2. helburu operatiboa: "KBEan dauden arrain espezieen gaineko eraginak ezabatzea", Ibai Korridore Ekologikoaren jarduketei lotzen zaiena.

Era berean lotua dago Ubarango errekak Batasunaren intereseko espezie batzuk izateko duen gaitasun potentzialarekin: muturluze piriniotarra (*Galemys Pirenaycus*) eta izokin arrunta (*Salmo salar*).

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Hona hemen:
- Zuzenean funtsezko elementuontzat da onuragarria: "Ibai Korridore Ekologikoa" eta "*Parachondrostoma miegii* eta komunitate iktikoa oro har"
- Halaber onuragarria izan daiteke "muturluze piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*)" funtsezko elementuarentzat eta Batasunaren intereseko izokin arrunta espeziarentzat (*Salmo salar*).

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Ubarango erreka, Leitzaran ibaia, Andoaingo udalerria.

Data

2017ko uda

Aurrekontua

147.828 €

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Ubarango errekaren konektibitatea lehengoratzea

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Ubarango erreka Leitzaran ibaiari lotzen zaio Oria ibaiarekiko elkargunetik hurbil. Leitzaran Ibaia KBEan sartua dago, bere natur balioek eraginda; besteak beste, arrain komunitatea eta ibaiertzen egoera ona dira nabarmentzekoak.

Hala ere, oztopo multzo batek faunaren mugimendua eragozten du, eta eragin hori handiagoa edo txikiagoa da, espeziearen eta unearen arabera.

4 oztopo dira, laurak ere errekaren behealdean daude 750 metroko tartean metaturik.

Lanaren deskribapena – HASIERAKO ETA EGUNGO EGOERA

Ondoren, oztopo bakoitzerako zer lan dauden aurreikusita azalduko dugu zehatz-mehatz, Leitzaran ibaiarekin elkartzen den tokitik hasita.

1. oztopoa
Lehena 100 metrora dago, Leitzaran ibaitik igotzen hasita. Tutu abandonatu bat da, hormigoiz babestua. Ibai-ibilgua mozten du, presa txiki batekin batera. 0,8 metroko jauzia da. Presa txikiaren jauzia, berriz, 1 m da. Errekak ur gutxiago dakarrenean, igeriketa gaitasun handiko arrainen ibilera zailtzen du; amuarrainaren eta izokin arruntaren ibilera, adibidez. Halaber, gainetik ura xaflatzen da –ia ez du sakontasunik–, eta horrek eragotzita, arrainak ezin dira igaro une jakin batzuetan. Erabiltzen ez denez, tutua eta presa txikia bere osoan ezabatzea dago aurreikusia.

2. oztopoa
760 metrora, Leitzaran ibaitik igota. Goiko Errotako presa txiki bat da, altueran 1,5 metrokoa. Aurreko oztopoaren antzeko arazoak eragiten ditu, jauzia handiagoa izanik ere, okertua baitago, eta harri irtenek ura atxikitzen dute. Sakontasun ona du behealdean eta goialdean, eta uraren laminazioa ez da 1. oztopokoa bezain handia; eta hori ona da arrainak igarotzeko. Errota erabiltzen da dibulgazio xedez; beraz, proposatu den irtenbideak errota errespetatuko du. Arrainen pasabidea hobetzea proposatu da, horren okertua egon ez dadin; zehazki, arrapala 24 metrotan luzatuko da, malda batez beste % 9 izan dadin.

3. oztopoa
830 metrora, Leitzaran ibaitik igota, ibi bat dago 30 cm-ko diametroko hormigoizko 10 tuturen gainean; jauzia 0,8 m da. Aldakorra da arrainen pasaera geldiarazteko gaitasuna, tutuak aldian behin ibiaren azpian buxatzen baitira. Nolanahi ere, arazoak izaten dira, ura ibi azpitik doanean (jauzia, tutu estuegiak, abiadura handiak tutu barruan, etab.) eta urak, ibi hormigoituaren gainetik zabaltzean, sakontasuna galtzen duenean. Proposatu da ibia kendu eta haren ordez hormigoizko hiru kaxoi paratzea, hirurak ere prefabrikatuak, horrelako arazorik ez izateko.

4. oztopoa
850 metrora, Leitzaran ibaitik. Andoain urez hornitzeko hodi zaharraren gurutze hormigoitua da. Gaur egun, ez da oztopo, baina aurreko ibia kentzean, aurreikusteko modukoa da jauzi txiki bat sortzea, eta horrek arazoak sor ditzake arrain espezie batzuentzat, errekak ur gutxi dakarrenean. Aurreikusia dago hodia sakonago lurperatzea arazorik ez izateko.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

- 1., 3. eta 4. oztopoak ezabatzea.
- Errotako presa moldatzea (2. oztopoa) arrainak igaro daitezen.
- Lan horien bidez, ibaiko 8.600 m liberatzea.
- Ibai-ibilgutik 378 m^3 material kentzea (hormigoia eta erabiltzen ez diren hodiak).



Irekibai · Natura 2000 · Life · Gipuzkoako Foru Aldundia · Diputación Foral de Gipuzkoa · ura · hazi · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra · Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, S.A. · Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

C1: Ubarango erreka lehengoratzea